



FORU DEKRETUA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Zerga Araudiaren Zerbitzua
Esp. zk.: 74/2019

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak bitarteko elektronikoko bidez egiten dituen jakinarazpen eta komunikazioen erregulazioa.

Zergapekoen eta Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren arteko zerga erlazioetan informazio eta komunikazio teknologien ezarpenak beste aurrerapauso bat egingo du jakinarazpen elektronikokoak ezartzen diren honetan.

Gaur egun, teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailak zalantzarik gabekoak dira bai zergapekoarentzat bai Zerga Administrazioarentzat, eta hobekuntza horiek zerga arloko jakinarazpen eta komunikazioen eremura eraman behar dira, betiere honako printzipio honetatik abiatuta: jakinarazpenetan baliabide elektronikoa erabiltzeak jakinarazpenaren kontzeptua eta xedea inola ere aldatuko ez dituelako printzipiotik, hain zuzen ere.

Kontuan izan behar da ezen jakinarazpenak direla zerga prozedurek oinarri dituzten ardatzetako bat, eta gatazkatsuak izan ohi dira. Sistema berriarekin gatazka hori arindu egin daiteke, eta, era berean, jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egiteak ahalbidetuko du zerga prozedurak azkartzea eta kostuak murriztea.

Azkartasunak eta aurrezpen ekonomikoak ez dituzte murriztuko (eta ez dute halakorik eragin behar) zergadunen eskubideak, ez eta haien berme juridikoak ere.

Bestalde, Foru Dekretu honek ez ditu jakinarazpenak bakarrik arautzen, ez eta jakinarazpen elektronikokoak ere, aldi berean ezartzen baitu zeintzuk diren jakinarazpenak baliabide horren bidez nahitaez jaso behar dituzten pertsonak eta erakundeak ere. Zentzu horretan, Arabako Zergei buruzko Foru Arauak bere 105. Artikuluan honakoa ezartzen du beren-beregi: “Zerga Administrazioak arau bidez ezarri ahal izango du ondoko interesdunek berarekin harremanak nahitaez bitarteko elektronikoen bitartez eduki beharra: gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, lanbideagatik edo egiaztatutako beste arrazoiren bategatik behar diren baliabide teknologikoak erabil ditzaketen pertsona juridikoek eta pertsona fisikoen taldeek”.

Nabarmentzekoa da jakinarazpenak eta komunikazioak bitarteko elektronikoko bitartez jasotzeko derrigortasunak berekin dakarrela Zerga Administrazioak zergapekoei jakinaraztea jakinarazpen elektronikokoaren sisteman sarturik daudela.

Bestalde, jakinarazpenen eta komunikazioen sistema berri hau ezin daiteke zurruna izan, eta horregatik, araudiak kasu sorta bat jasotzen du, non jakinarazpen eta komunikazio horiek elektronikokoak ez diren baliabideen bidez egin baitaitezke.



Halaber, arauketak kasu sorta bat ezartzen du, non kasu batean ere ezin daitekeen jakinarazpen eta komunikaziorik egin egoitza elektronikoa, eta, besteak beste, hauexek aipatzen ditu: jakinarazi beharreko egintzarekin batera elementu batzuk eranstean badira ezin direnak bihurtu formatu elektronikora, egintzak bertaratuta edo elektronikoa ez den modu baten bidez egin behar badira arauak berariaz halaxe xedatzen duelako, edo berariazko arauketa duten prozedura elektronikoak badira.

Halaber, zerga administrazioak zergapekoei jakinarazpenak zein egunetan ezin izango dizkien egin arautzen da foru dekretu honetan; baita jakinarazpen elektronikoko sistemaren funtzionamenduan hutsek edo bestelako arazoek eragin ditzaketen ondorioak ere.

Bestalde, Zerga Arautegiko Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak gaiaren inguruan egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak bide elektronikoz egiten dituen jakinarazpenak eta komunikazioak, zergen aplikazioarekin eta zerga prozedurekin zerikusia dutenak, arautzea, bai eta jakinarazpenak eta komunikazioak bide horietatik jasotzera beharturik dauden pertsonak eta entitateak ezartzea ere.

2. artikulua Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren araubidea.

Pertsonen eta erakundeen bitarteko elektronikoko bidezko jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko araubidea honakoa izango da: administrazio arau orokorretan ezarritakoa, betiere Zergei buruzko Foru Arauak eta foru dekretu honek ezarritako espezialitateak barnean hartuz.

3. artikulua. Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoari buruzko alderdi orokorrak.

1. Foru dekretu honetan xedatutakoaren esparruan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak egin behar dituen jakinarazpen eta komunikazio elektronikoko guztiak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertuz egingo dira, foru dekretu honetako 6. artikuluan ezarritako salbuespenekin.

2. Foru Dekretu honek bere 7. artikuluan ezarritako zergapekoak beharturik daude zerga arloko jakinarazpen eta komunikazioak baliabide elektronikoko bidez jasotzera.

3. Jakinarazpen elektronikoko sistemak ahalbidetuko du jakinarazpenaren xedea den egintza interesdunaren esku edo, hala badagokio, ordezkariaren esku jartzeko data eta ordua egiaztatzea.



Era berean, ahalbidetuko du bere edukia eskuratu izanaren data eta ordua egiaztatzea; une horretatik aurrera jakinarazpena egin dela ulertuko da, legezko ondorio guztietarako. Aurrekoa ulertu behar da artikulu honen hurrengo 5. zenbakian ezarritakoari kalterik egin gabe.

4. Zenbait bitarteko (elektronikoak edo ez-elektronikoak) erabiltzearen ondorioz, gerta daiteke administrazio egintza beraren jakinarazpen bat baino gehiago egitea; halakoetan, jakinarazpenaren efektu juridikoak sortutakotzat joko dira (horien barruan bidezkoak diren errekursoak jartzeko epearen hasiera), zuzen egindako lehenbiziko jakinarazpenetik aurrera.

5. Interesdunak ez badu irakurtzen jakinarazpena 10 egun naturaletan, beraren esku jarri dela egiaztaturik, ezetsi egin duela pentsatuko da eta horrek foru arau honetako 107. artikuluko 107.2. idatz zatian ezarritako ondorioak sortuko ditu (salbuespena: ofizioz edo jasotzaileak eskatuta jakinarazpena irakurterik ez dela egon egiaztatzen bada, ez dira sortuko ondorio horiek).

6. Edozein pertsona edo entitatek, foru dekretu honetako 7. artikuluan jasotzen direnak izan ezik, komunikazioak eta jakinarazpenak bide elektronikoz jasotzera beharturik baitaude, eskatu ahal izango dio Foru Aldundiari, egoitza elektronikoa atondutako atal egokiaren bitartez, bera hartzaile duten jakinarazpen guztiak baliabide elektronikoz bakarrik egin daitezela.

Pertsonak edo entitateak eskatzen baldin bada bera ezeztatzea jakinarazpenak eta komunikazioak bide elektronikoz jasotzeko sistematik, ezeztatze hori gehienez ere 15 eguneko epean egin beharko da, dagokion eskabidea aurkezten denetik aurrera.

7. Interesdunek jarduketa administratiboen edukia sarbide elektronikoz eskuratzeko berekin dakartza bertararata egindako jakinarazpenaren ondorio berberak, baldin eta eskuratzeko horren konstantzia geratzen bada.

4. artikulua. Jakinarazpen eta komunikazioak bitarteko elektronikoz egitea.

1. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak jakinarazpen edo komunikazio elektronikoz egingo ditu hurrengo artikuluetan aipatzen duen egoitza elektronikoa agertzeko sistema baliatuz.

2. Arabako Foru Aldundiak ziurtatuko du egoitza elektronikoa bitartez egiten den jakinarazpena. Ziurtapen hau era automatizatuan sortu ahal izango da eta haren barruan, gutxienez, hauek jaso beharko dira: jakinarazten den egintzaren identifikazioa, haren hartzailea, ordezkariaren datuak, hala badagokio, eskura jarri zen data eta haren edukirako sarrera egin zen data, edo jakinarazpena ez onartutzat emango den eguna horretarako ezarritako epea igaro izanagatik, baita ere izandako akats teknikoaren azalpena eta haiek jakinarazpenaren aldetik dituzten ondorioak.

3. Halaber, jakinarazpen eta komunikazio elektronikorako bestelako sistemak gaitu ahal dira, betiere interesdunak erregulazio zehatzean ezarritako epean eta baldintzetan jaso duela ziurtatuta.

5. artikulua. Jakinarazpen eta komunikazioa egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez.

Egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidezko jakinarazpen edo komunikazioa egingo da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa arautzen duen arautegiak ezarritakoaren arabera, betiere foru dekretuan ezarritako espezialitateak aintzat hartuz.

6. artikulua. Bitarteko elektronikoz bidezko jakinarazpen eta komunikazioen salbuespenak.



1. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak jakinarazpen edo komunikazioak baliabide ez-elektronikoen bidez egin ahalko ditu Arabako Zergei buruzko Foru Arauaren 105-108. artikuluetan ezarritako tokietan eta moldeetan, honako kasuak azaltzen badira:

a) Jakinarazpena egiteko arrazoia interesduna edo haren ordezkaria Arabako Foru Aldundiko bulegoetan agertzea bada eta une horretan eskatzen badu komunikazio edo jakinarazpen pertsonala.

b) Zerga aplikatzeko prozeduren eraginkortasuna eta, hala dagokionean, azkartasuna bermatzeko, administrazioak egokiagotzat jotzen badu jakinarazpena edo komunikazioa bide elektronikoez bestelakoetatik egitea.

c) Jakinarazpenak eta komunikazioak jakinarazpen zerbitzuaren emailearen esku jarri badira zergapekoei emateko, betiere baliabide elektronikoen bidezko jakinarazpena aplikagarria izan baino lehenago.

2. Honako komunikazio eta jakinarazpenak ez dira inola ere modu elektronikoa egingo:

a) Jakinarazi beharreko egintzarekin batera formatu elektronikora ezin bihur daitekeen elementuren bat igorri behar denekoak.

b) Beren araudi espezifikoarekin bat zergapekoaren egoitza fiskalean edo araudiak horretarako ezarritako beste leku batean pertsonatuz edo elektronikoa ez den beste edozein modutan egin behar direnak.

c) Kreditu entitateetan irekitako kontuetan diruaren enbargoa bitarteko elektronikoen bidez egiteko prozedurari atxikitako kreditu entitateei zuzendutakoak.

d) Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren zerga bilketaren kudeaketan lankidetzaz zerbitzuan aritu bitartean lankidetzaz erakunde diharduten kreditu entitateei zuzendutakoak.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da eragozpen izango beronetan aipatutako jakinarazpen edo komunikazioetako batzuk egiteko bitarteko teknikoak erabiltzeko, haien araudi espezifikoarekin bat.

7. artikulua. Jakinarazpenak eta komunikazioak baliabide elektronikoen bidez jasotzera behartuta dauden pertsonak eta erakundeak.

1. Nortasun edo forma juridikoa edozein dutela ere, beherago adierazitako inguruabarretako baten batean dauden pertsonak eta entitateak behartuta daude Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren komunikazioa eta jakinarazpenak bide elektronikoen bidez jasotzera. Hona hemen inguruabar horiek:

a) Sozietateen gaineko zergako zergadunak edo, hala dagokionean, haien ordezkariak.

b) Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez erabakitzen den beste edozein.

2. Zergapekoa jakinarazpen elektronikoko sisteman nahitaez sartzea eragin zuten inguruabarrak desagertzen direnean, bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaio sistema horretatik kanpo geratu dela, eta jakinarazpen horrek ondorioak sortu eta biharamunean geratuko da sistematik kanpo.



Baina, zergapekoak, jakinarazpen elektronikoko sisteman nahitaez sartu aurretik bitarteko elektronikoa jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzeko metodo gisa hartzen duela adierazi badu, orduan, sistema horretan jarraituko du.

8. artikulua. Sartu izanaren jakinarazpena.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak beharturik dauden subjektuei jakinaraziko die jakinarazpen elektronikoko sisteman nahitaez sartuta daudela.

Jakinarazpen hori foru-dekretu honen 3. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoarekin bat egingo da, bai eta bitarteko ez-elektronikoen bidez eta Arabako Zergei buruzko Foru Arauaren 105.etik 108.era bitarteko artikuluetan ezarritako lekuetan eta bitartekoen bidez ere, non eta zergapekoak ez duen adierazi jakinarazpen elektronikoa jakinarazpen bitartekotzat jotzen duela, foru dekretu honetan jasotakoarekin bat.

Zergapekoen zentsuan alta emanda egonez gero, zergapekoa jakinarazpen elektronikoko sisteman nahitaez sartuta dagoelako jakinarazpena dagokion identifikazio fiskaleko zenbakiaren komunikazioarekin batera egin ahalko da.

9. artikulua. Jakinarazpen eta komunikazioen sinadura elektronikoa.

Foru dekretu honetan xedatutakoaren arabera Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak bide elektronikoz egiten dituen jakinarazpen eta komunikazio guztiak administrazio ekintza automatizatu bidez egingo dira, eta sinadura elektronikorako honako sistema hauek erabili ahal izango dira:

- a) Arabako Foru Aldundiaren zigilu automatikoa, aitortutako ziurtagiri elektronikoko batean oinarritua.
- b) Egiatzatzeko kode segurua, Arabako Foru Aldundiarekin lotua. Betiere ahalbideratuko da dokumentuaren osotasuna egiatzatzea egoitza elektronikorako sarbideaz.

II. KAPITULUA

Jakinarazpenak zergapekoen esku ezin jar daitezkeen egunak

10. artikulua. Jakinarazpenak zergapekoen esku ezin jar daitezkeen egunak adierazteko eremu subjektiboa.

1. Jakinarazpen elektronikoen sisteman sarturik dauden zergapekoek adierazi ahalko dituzte jakinarazpenak euren esku ez jartzeko egunak, derrigorrez edo eurek hala eskatuta.

Aipatutako egunak zehazteko, horiek hautatu beharko dira; era berean, aldatu eta kontsultatu ahalko dira. Hori guztia foru dekretu honen 12. artikulua ezarritako mugekin bat etorritik.

2. Zergapekoak badihardu edo ordezkaria badu jakinarazpenak jasotzeko, ordezkari horrek ezarri beharko ditu artikulua honetan adierazten diren egunak.

11. artikulua. Jakinarazpenak zergapekoen esku ezin jar daitezkeen egunak adierazteko eremu objektiboa.



Jakinarazpen elektronikoaren sisteman sartutako zergapekoei dagokienez, jakinarazpenak euren esku ezin jar daitezkeen egunak adierazteak bere barnean hartzen ditu Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak bere jarduketara eta zerga prozeduretan egindako jakinarazpenak, bai eta beste erakunde edo herri administrazio batzuen baliabideen kudeaketan egindakoak ere.

12. artikulua. Egunen muga gehienez eta horiek aldatzeko aukera.

1. Foru dekretu honetako 10. artikuluan adierazten diren subjektuek, foru dekretuaren 14. artikuluan adierazten den prozedurari jarraituz, gehienez ere 30 egun jarri ahal izango dituzte urte bakoitzeko. Egun horiek libreki aukeratu ahal izango dira, gutxieneko egun kopuru bat batu beharrik gabe.

2. Urte naturalaren barruan, jakinarazpen elektronikoaren sisteman nahitaez sartu behar den edo jakinarazpenak bitarteko elektroniko bidez jasotzeko borondatezko alta hartzen duen zergapekoak hasita dagoen urte naturaleko 30 egun natural guztiak erabili ahalko ditu, egunak urteari geratzen zaion zatiaz hainbanatu gabe.

3. Jakinarazpenak zergapekoen esku ezin jar daitezkeen egunak ezinbestean eskatu beharko dira gutxienez ondorioak ekarriko dituen lehendabiziko eguna baino 7 egun natural lehenago eta, behin zehaztuta, beren-beregiko eskaera bidez aldatu ahalko dira eta horrek hasieran aukeratutako epea indarrrik gabe utziko du; hala ere, urtean gehienez eta gutxieneko aurrerapenaz eska daitezkeen egunei dagozkien mugak arestian aipatutako berberak izango dira.

13. artikulua. Jakinarazpenak zergapekoen esku ezin jar daitezkeen egunak adierazteak dakartzan eraginak.

1. Helbide elektroniko gaituan jakinarazpenik ez egiteko egunak adierazteko orduan atzerapena badago, hori prozeduraren luzapentzat joko da, eta ezingo zaio Administrazioari egotzi, zerga arautegian ezarri bezala.

2. Zergapekoaren eskura jakinarazpenik ez jartzeko egunen adierazpenak egun horietan egin ahal diren jakinarazpenak baino ez ditu ukituko. Egun horiek ez dira inola ere kenduko jakinarazpena adierazi den lehenengo egunaren aurretik egiteagatik abiarazten diren epeen zenbaketatik.

3. Artikulu honetan ezarritako ondorioetarako, Arabako Foru Aldundiak atzerapen hori egiaztatu beharko du, betiere jakinarazpenaren xedea izandako egintza egoitza elektronikoan zergapekoaren esku jarri ahal izan zen data eta ordua ziurtatuz.

4. Edonola ere, foru dekretu honen 10. artikulua ezarritakoa bat ez badator administrazio jarduketak ondorioen efikazia eta eraginkortasuna ziurtatzeko berehalakotasunarekin edo azkartasunarekin, foru dekretu honen 6.1.b) artikuluan ezarritakoa izango da aplikagarri.

14. artikulua. Egoitza elektronikoan jakinarazpenik ez egiteko egunak adierazteko prozedura eta baldintzak.

1. Zergapekoen eskura jakinarazpen elektronikorik ez jartzeko egunen adierazpena Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egin beharko da derrigor.

Egunak behar bezala adierazi ondoren, aurkezpen agiria sortuko da, egiaztatze kode seguru batek baliozkotzen duena eta eskaeraren eguna eta ordua adierazten dituena. Beste bide baten bidez



aurkezten den eskaerak ez du inolako ondoriorik sortuko, eta artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.

2. Aipatutako egunak adieraziko dituen pertsonak foru dekretu honek bere 10. artikuluan ezarritako eremu subjektiboaren barruan egon behar du; era berean, identifikazio fiskaleko zenbakia izan beharko du.

III. KAPITULUA

Jakinarazpen elektronikoen sistemaren funtzionamenduan izan daitezkeen akatsak edo gabeziak

15. artikulua. Jakinarazpen elektronikoen sistemaren funtzionamenduan izan daitezkeen akatsak edo gabeziak.

Jakinarazpenak eskura ipintzen diren aldian akats, anomalia edo etendurarik gertatzen bada jakinarazpenen eraginkortasun osorako eta hori Arabako Foru Aldundiari edo berak erabilitako zerbitzuei leporatu ahal bazaie, adierazitako epea luzatu egingo da egun batez epe horren barruan akats, anomalia edo etendura hori gertatu den egun bakoitzeko.

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratzen denetik 20 egun igaro eta gero jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz.

Ramiro González Vicente

Diputatu nagusia
Diputado General

Itziar Gonzalo de Zuazo

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu
Saileko foru diputatua
Diputada Foral de Hacienda, Finanzas y
Presupuestos

Teresa Viguri Martínez

Ogasun zuzendaria
Directora de Hacienda